

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

293 - 2021eko uztaila



OHITURAK BERPIZTEKO
ETA FESTAK ALAITZEKO



POSTONTZIA

- ✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?
- ✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteren bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: mailope@labrit.net / 638 652 339.



**aseguru
gintza
XXI**

**ASEGURU
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna
babesteko modu bakarra
behar bezela aseguratua
egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



**Construcciones
Gañarbe**

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri

📧 construccionesganarbe@gmail.com

☎ 616 457 540

☎ 636 827 846

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruiz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Maillope Kultur Elkarte.

L.G.: NA 719/93

Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzirik eta esaneren erantzukizunik.

issuu.com/maillopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:

Labrit, Ricardo Bosch, Beti Kozkor, Mattie Garaikoetxea, Printza, Lekunberriko Udala, Larraungo Udala, Mendukilo, Ioseba Ordoki, Igor Mitxaus, Hodei Etxarri, Jexux Oreja, Edurne Martinikorena, Ura eta Lurra, Ibarberri Eskola eta Udalbiltza.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - maillope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Araitz Amatria.

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

LABRIT
MULTIMEDIA

04

KUXKUXEAN Uztaileko zorion agurrak.

08

ELKARRIZKETA



Arantxa Mikeo.

12

IZAN GAZTE Suizidioa.

14

BATZARRE Programazio feminista udazkenean arte.

16

ERREPORTAJEA



Larraungo Konpartsa.

20

KIROLA Skadi Arku-tiro Eskola.

22

ERREPORTAJETXOA Beteluko festak.

25

KULTURA "Kirikuren begirada" Antonea Etxean.

28

PLAZATIK PLAZARA Hormak LGTBQ+ elkarte.

31

AGENDA





Leire Eleta Egaña

Ekainaren 24an, 7 urte.

Zorionak, polita! Etxeko guztion partez, egun zoragarria pasa ezazu. Muak!



Markel Etxeberria Etxarri

Uztailaren 22an, 3 urte

Zorionak! Eguna iritsi da, eta primeran pasako dugu! Muxu erraldoi bat!



Malen Astiz Arangoa

Uztailaren 7an, 4 urte.

Zorionak, Malen! Egun ederra pasa! Muxu potoloak etxekoan partez!



Eneko Etxeberria Arguiñarena

Uztailaren 12an, urte bat.

Zorionak, pottoko! Jarraitu orain bezain alai eta irribarrets! Muxu haundi bat Ane, aitatxo eta amaxoren partez.



Iraia Elordi Sanz

Uztailaren 18an, 2 urte

Zorionak, Iraia! Nola handitzen ari zaren ttikitto! Urtebetetze egun ederra pasa. Muxu erraldoi bat, asko maite zaituen familia guztiaren partez.

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!

Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



AKAIN ASKO MALKORREAN

Udan eta udaberrian, intsektu eta zomorro gehiago agertzen dira, eguraldia dela eta. Hain justu, Lekunberriko Udalak eta hainbat herritarrek ohartarazi dute Malkorrean akain asko daudela, eta kontuz ibiltzeko eskatu dute.



ALDAZKO HARROBIA, KORRONTZIREN AGERTOKI

Korrontzi taldeak *Mezobarri* abestiaren bideoklipa aurkeztu du, eta hainbat eszena Aldazko harrobian grabatu dituzte. *Koplariak* diskoaren kanta bat da, eta Oinkari dantza taldearen eta Eneko Gil koreografoaren partaidetza izan dute.



WHATSAPP DIFUSIO KANALA MARTXAN LARRAUNEN

Larraungo Udalak WhatsApp difusio kanala jarri du martxan, herritarrekin komunikazioa hobetzeko. Abisuak, erabakiak eta egitasmo bereziak bidaltzeko tresna bat izango da. Alta emateko "Alta" dioen WhatsApp mezu bat bidali behar da 621 299 301 zenbakira.

► Oiane Otamendi Etxarri (Betelu)



Gizarteakin talka ittean akabo norberan askatasuna. Mugak maitatzeai, sehaskai ta itxurari, zapalduz gure nortasuna.


Nik ere nahi nuke izan gizon, zuri, argal, aberats ta hetero, izateko libre.

"Normaletik" at dagon edonor epaitu ta baztertua; ezberdintasunetik abiltuz parekotasun mundua.

Nik ere nahi nuke izan artaldeko parte pareko, ez-berdin, izateko libre.

Gezurrezkoak diren ispiluk gure irudia "desislatzen"; harrapatzen gaituzten saretan perfekzioa zintzilikatzen.

Nik ere nahi nuke izan gizaki perfektu, ajeak onartu behar izateko libre.



JOANDAKOAK GOGOAN

Juanita Barberia Aranguren hil zaigu,
105 urterekin.

Maiatzaren 26an hil zen Atezko Iriberriko alaba. 1915eko uztailaren 6an jaio zen, eta bataioa Musikizko elizan hartu zuen.

1939ko apirilaren 18an ezkondu zen, gerra bukatu berri-berritan, Atalluko Atallumendi bordako Juan Bautista Otxotorena Estangarekin. Iruñeko San Saturnino elizan egin zuten ezkontza. Aspaldi handian alargundua zen Juanita, ia-ia hil artio Atallumendin bizitu zen, eta bertan zazpi seme-alaba hazi zituzten.

Atalluko kanposantuan ehortzi zuten.
Gure doluminak familiakoei.
Goian bego.

BARKAMENA ESKATU BEHARKO

Gaur, ekainak bost, Orreagako Andre Maria kolegiatan, bi musika kontzertu garrantzitsu izan dira, lehena, eguerdian, eta, bigarrena, 19:30ean. Bi arrazoi izan dira ekitaldi horiek egiteko, bat, Jesus Labiano priore ohiak, 95 urte bete dituelako, eta, bestea, Orreagak 800 urte osatu omen dituelako bere hasieratik.

Nire inguruko jendea gustura joan da kontzertu horietara, eta, baita atseginez beteta itzuli ere. Nik, ordea, gurpil aulkian ibilita, ez joatea erabaki dut, aspaldian hartu nuelako deliberoa, oztopo arkitektonikoak dau-den lekuetan, ez egiteko antzerki eta zirku gehiagorik, eta, Orreagako monumentu gune hartan, oraindik oztopo ugari eta garrantzitsu daude.

Duela bi hamarkadaz geroztik, gutxienez, aritu izan naiz harremanetan kolegiatako arduradunekin, eta, baita Vianako Printzearenekin ere, Orreagako monumentu gunea, eskuragarria izan dadin arauz kanpoko funtzionaltasuna daukaten pertsona guztientzat, baina, zoritxarrez, gaur egun, oraindik ezin dugu esan horrelakoa dela; noiz arte? Auskalo! Bide gaitz hori oso luze doa pertsona askorentzat! Eta inork ez dezala esan, mesedez, ez daukala konponbiderik! Gauza askoz ere zail eta konplexuagoak egokitu dira-eta!

Kontzertu horietara joateko, pertsona guztiek ez dute izan erraztasun berbera, elbarriek, esate baterako; are gehiago, batzuei eragozpen handiak jarri zaizkie haraino iristeko, eta, ondorioz, nazioarteko giza eskubide guztiak ez dira berdin errespetatu pertsona guztientzat, eta, hala ere, 2021ean omen gaude. Nahikoa da! Entzun dezatela entzun behar dutenek, eta, batez ere, egin dezatela egin behar dutenek!

Eta bukatzeko, beste giza eskubide bat. Kontzertu horien egitaraua nire eskuetaraino iritsi da, eta, samin handiz, ikusi ahal izan dut, den-dena espainiera garbi eta hutsean dagoela. Antolatzaile: Nafarroako Arte eta Ondare Katedra (Nafarroako Unibertsitatea); babesle: Nafarroako Gobernua eta Diario de Navarra; laguntzaile: Orreagako Andre Maria Errege Kolegiataren Lagunen Elkarte. Orreaga ez al dago, ba, Nafarroako euskal eremuan? Noiz arte jarraitu behar dugu izaten bigarren mailakoak euskaldunok, geure etxean? Non ote daude euskaldunon hizkuntza eskubideak?

Pertsona batek baino gehiagok, barkamena eskatu beharko luke, hainbeste jenderen giza eskubide batzuk ez betetzeagatik! Eskatuko ote dute? Ez dut uste.

Xanti Begiristain Madotz (Auritz).

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi
mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



agur
plástico
adiós

#AGURPLASTIKOA

Kanpora! Inork ez zaitu festa honetara gonbidatu.



2021EKO UZTAILAREN 3TIK AURRERA, DEBEKATUTA DAGO
ERABILERA BAKARREKO PLASTIKOAK ETA BIRZIKLATU EZIN
DIREN MATERIALEZ EGINDAKO MONODOSIAK EDO KAPSULAK SALTZEA.

Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko
14/2018 Foru Legea, 2018ko ekainaren 18koa.



Agurtzen ditugun
produktu guztiak
eta bere alternatiba
jasangarriak
ezagutu.

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



“Ez nituzkeen hamar urte aguantatu izango maila pertsonalean eman didan guztia eman izan ez balit”

Aldizkariaren urte zailetan hartu zuen Arantxa Mikeo lekunberriarrak 'Mailope'-ren lekukoa. Hamar urtez aritu da inguruko albisteen berri ematen, eta, bizipen horiei guztiei esker, aski ezaguna da bailaran. Aitortu du kostatu zaiola aldizkaria uztea, baina asebeteta sentitzen da jaso duen guztiarekin.

Nolatan ailegatu zinen Mailope-ra orain dela 10 urte?

2011ko ekainean Kazetaritza gradua bukatzen ari nintzen Leioan. EITBko albistegietan nengibilen, praktikak bukatzeaz, eta, halako batean, Labrit Multimedia enpresatik deitu ninduten. Ordu hartan, Enara Intxausti sakandarra zebilen Mailope-n, eta lana utzi behar zuenez, lanpostua eskaini zidaten. Nik hasieratik baiezkoa eman nien. Gradua bukatu berritan, ikasi duzun horretan lan egiteko gogoz zaude. Iraileko alerako hasi nintzen lanean.

“Herritarrekin sortzen duzun harremana betirako daukazu, nahiz eta 'Mailope' utzi”

Nola sentitu zinen ikasitakoa aldizkari batean praktikan jartzean?

Ez daukat oroitzapen txarrik, edo ez dut gogoan zaila izan zenik. Ni sartu nintzenean aldaketa batzuk egin genituen diseinu aldetik, aldizkaria asko aldatu zen, urtean behin saiatzen baikara pixka bat berritzen. Bileran haietan parte hartu nuenez, nahiko erraza egin zitzaidan. Lehen-dabiziko elkarrizketetan urduriago nengoen. Lekunberri eta Larraungo jende gehiena ezagutzen nuen, baina garai hartan nik lau urte eman nituen Bilbon bizitzen, eta kanpoko jende asko etorri zen hona. Alde horretatik, Mailope-k herritar berri horiek ezagutzeko aukera eman zidan. Araitz-Betelun, berriz, nire adintsuko jendea ezagutzen nuen, eta beti gustatu izan zait hango giroa, baina, horiez gain, ez nuen jende gehiegi ezagutzen. Halere, egia da Mailope-ren izenean joanda nahiko erraz moldatu nintzela; denek kariño berezia diogu aldizkariari. Ahoz aho ere zabaltzen da nor zaren.

Ikasitakoa praktikara eramanda gauzak aldatu egiten dira askotan.

Aurretik, Berria egunkarian eta EITBn ibili nintzen, eta, kasu honetan, proiektua pertsonalagoa zen, gertuagokoa. Elkarrizketak oso modu naturalean egiten nituen, grabagailua martxan jarri eta elkarrizketatuari ahaztu egiten zitzaion elkarrizketa bat zenik ere. Horrela,



Hamar urte eta gero Arantxa Mikeok Ane Ubeguni pasa dio Mailoperen lekukoa. Arg: Labrit.

gainera, jasotzen dituzun erantzunak aberatsagoak dira. Alde horretatik, ez du zerikusirik hedabide handi-
go batean lan egitearekin. Kostatu
zitzaidana da elkarrizketak mugatzea
argitaratzerakoan, asko luzatzen
baitziren.

Profesionaletik haratago, maila pertsonalean ere asko eman dizu? Eta kendu?

Ez nituzkeen hamar urte aguantatu
izango maila pertsonalean eman
didan guztia eman izan ez balit. Lan
oso polita da, baina baita nekagarria
ere. Ordu asko dira, asteburuetako
lana... Hilabete batzuetan pentsatu
izan dut azkena izango zela. Baina
oso esker oneko lan bat da, jendeak
asko eskertzen baitu egiten duzuna,
eta norbaiti lagundu diozula sen-
titzen duzunean, oso aberasgarria
da. Gainera, jende pila bat ezagutu
dut. Elkarrizketa bat egin eta gero,
harremana mantentzen duzu herri-
tar horrekin, *feeling* hori sortzen da,
eta hori betirako daukazu, nahiz eta
Mailope utzi.

Esperientzia onez gain, txarrik ere izan duzu?

Zorionez, ez askorik. Adibidez, oso
gogorra egin zitzaidan Larraun-Le-
kunberrin Ibarberriko erreferentzia
zentroaren gaiarekin egon zen ga-
tazka hura, 2014an. Lekunberriko eta
Larraungo udalak tartean zeuden,
eta, nire ustez, nahiko isilik egon zi-
ren. Herrian eztabaida bat sortzen ari
zen, bitan banatzen: batzuk Biurda-
na erreferentzia zentro gisa man-
tentzearen alde zeuden eta beste
batzuk Amazabal institutuaren alde.
Gurasoak eta bizilagunak borrokan,
eta udalak, herritarren ordezkari
direnak, isilik. Niri bi aldeetako jen-
dea etortzen zitzaidan, eta nik udal
ordezkarien erantzuna behar nuen.
Lotsagarria izan zen urte hartan udal



Araizko Krosean laguntzaile eta guzti!

ordezkarien partez egon zen isiltasu-
na, desinformazioa eta gardentasun
falta izugarria. Niretzat oso tristea
izan zen. Holako egoerak gertatzen
direnean, aldizkaria dago tartean,
eta oso funtzio garrantzitsua bete-
tzen du, denei ahotsa eman behar
diezulako, baina tartean zaude, eta
ez da atsegina.

Inpartzialtasuna ezarri behar du aldizkariak?

Instituzioen aldetik informazio
objektiboa behar duzu. Herritarren
aldetik jasotzen nuen informazioa
banekien ez zela guztiz egia. Kasurik
desatseginenak instituzioekin lotu-
takoak izan dira. Askotan aldizkariak
balio izan du herritarren eta insti-
tuzioen arteko arazoei irtenbideak
emateko, herritarrek aldizkaria
jotzen baitute nolabaiteko aterabide
bat bilatzeko. Horrek alde batetik
balio du ohartzeko zein garran-
tzitsua den gure lana, ahaldundu
egiten zaitu, baina ez dira egoera
oso atseginak.

Hasierako urteetan oso garrantzi-
tsua izan zen udalekin harremanak

*“Aldizkariak balio izan du
herritarren eta instituzioen
arteko arazoei irtenbideak
emateko”*



estutzea, eta nik uste hori azken urteetan bereziki lortu dela, giroa goxatzea eta elkarlanean aritzea. Udalek gehiago erabili beharko lukete tokiko aldizkaria gaiak zabaltzeko edo egiten duten lana gizarteratzeko.

Esperientzia berezi eta bitxi asko izango zenituen.

Gogoan dut Margarita Rekalde beteluarrari elkarrizketatu nuenekoa. Ehun urte bete berriak zituen eta Burlatako zahar etxean zegoen. Oso bizitza mugitua izan zuen, urte asko eman zituen Betelutik kanpo. Tarteka gustatzen zait adineko jendea elkarrizketatzea, asko baitute kontatzeko. Zahar etxean egin nion, memoria oso ona zuen, eta elkarrizketa egin

eta 24 ordu eskasera hil zen. Hasieran izugarritzko sustoa hartu nuen, pentsatu nuelako agian tentsio handiegian jarri nuela, eskerrak bere ilobetako baten aurrean egin genuen elkarrizketa! Gainera, bideo-kameraz grabatu genuen, eta hori behintzat hor dago familiarentzat gordea. Sentsazio gazi-gozoa izan nuen.

Zeresan handia izan duenik?

Azken urteetan saiatu izan naiz tarteka tabuak diren gaiak edo gehiegi aipatzen ez ditugunetan sakontzen. Minbiziarena landu genuen, Maider Otegi, Lontxin Zubillaga eta Belen Miguelekin. Niretzat oso elkarrizketa gogorra izan zen, baina baita terapeutikoa ere. Haientzat ere oso aberasgarria izan zela uste dut. Erreportaje horrekin zorion eta iruzkin pila bat jaso nituen. Hilekoarena ere azalean jarri genuenean asko komentatu zen. Argitaratzen denaz positiboki nahiz negatiboki hitz egiten denean esan nahi du baduela eragin bat herrian, eta hori da aldizkari baten helburua: saltsa piztea eta herritarrengana iristea.

Zaila izaten da herrien arteko oreka mantentzea?

Hori da aldizkariak hasieratik izan duen erronka nagusietako bat. Ekitaldi nagusiak Lekunberrin eta Betelun antolatzen dira normalean, eta betiko erronka da, horiez gain, beste herri txikietako gauzak ere kontatzea. Ez da hain erraza horien berri izatea, baina nahikoa da baten batek deitu eta kontatzearekin.

IORTIA EL INCA ESTETIKO HORTZ ELBINA

Juanjo Gaité García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Tellería Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

Zer ematen die *Mailope*-k bailareei?

Batetik, eskualdea elkartzeko, batzeko balio izan duen proiektu bat da. Bestetik, zerbitzu oso indartsu bat, bai eragileentzat, bai edozein herritarrentzat; bozgorailu bat da edozein gauzetarako. Herrietan egiten diren lanak plazaratzeko, publizitatea egiteko...

Atzera begira, zer balorazio egiten duzu?

Oso positiboa, eta pena handia ematen dit. Lana uztearena asko kostatuko erabaki bat izan da. Egia da azken urteetan nabaritzen nuela agortuta nengoela, urte asko direlako proiektu berean. Gainera, *Mailope*-z gain ere beste lan batzuk egiten ditut Labrit Multimendia enpresan, beste aldizkari batzuk, ikus-entzunezkoekin eta ondare immaterialarekin lotutako proiektuak... *Mailope*-ren kasuan, sentitzen nuen neronek gero eta gutxiago ematen niola.

***Mailope*-ren etorkizuna bermatuta dago herritarren aldetik?**

2011. urte inguruan izan genituen urte zail haietan aurrera egitea lortu bagenuen, herritarrei esker izan zen. Herritarren horrelako babesik ez genuke izango ez balute proiektua maite izan eta ez balute horrelako atxikimendurik izan. Hurrengoari esango niuke goza dezala, bai profesionalki, bai pertsonalki. Oso gertuko proiektu bat da, goxoa, asko ematen dizuna, gehiago pertsonalki profesionalki baino. Disfrutatzen baduzu, egiten duzun lanean islatuko da.

Norekin gogoratzen zara bereziki?

Herritarren laguntzarik gabe *Mailope* ez litzateke posible izango. Denei eskerrak eman nahi dizkiet, baina badira bereziki eskerrak eman nahiko nizkien batzuk: Juan Antonio



Garaikoetxea argazkilaria, edozein momentutan aski nuen telefonoa hartu eta hari laguntza eskatzea, eta a zer argazkiak ateratzen dituen gainera; betirako izango dut harremana harekin. Bestetik, Agustin Saralegi *Mixto*, Gaintzako ospakizun guztietako argazkiak eta kronikak bidaltzeagatik. Araitx-Betelun asko lagundu dit Lontxin Zubillagak, edozer zalantza nuela ere. Argazki zaharrak aurkitzeko eta garai bateko kontuak jakiteko, Inma Etxarri, Lekunberriko kultur teknikaria. Eta, bereziki, Mikel Hernandorena eta Xanti Begiristain, *Mailope*-ko erredakzio eta zuzentzaile taldeko kideak; euren lanik gabe ez dakit zer pasatuko litzatekeen aldizkariarekin. Horiez gain, esker-tu ere kolaboratzaileei egindako lanagatik, eta barkamena eskatu batzuetan horren astuna izateagatik! Eskertzekoa da aldizkaria osatzen laguntzeko eskaintzen duten denbora.

Juan Antonio Garaikoetxea argazkilaria laguntzaile fina izan du.
Arg: Labrit.

“Aldizkari baten helburua saltsa piztea eta herritarrengana iristea da”

NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazaris@hotmail.com

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

Suizidioa: informatu, babestu eta laguntza eskatu

Besarkadak Elkartean laguntzaz

Suizidioa guk uste baino presentego dago gure egunerokoan. Askok eta askok bizitu izan dute gertutik, edota ezagutzen dute suizidatu den edo bere bizia amaiarazten saiatu den norbait. Alabaina, oso gutxi aipatzen den gai bat da, ezkututzen saiatzen dena, saihesten. Zaila da heriotzaz hitz egitea, eta are gehiago pertsona batek bere bizia amaiaraztea erabakitzen duen kasuetan, gogorra baita pertsona bat horrelako egoera batean imajinatzea. Hala eta guztiz ere, adituen arabera, oso garrantzitsua da suizidioaz hitz egitea eta horri buruzko informazioa jasotzea; alde batetik, lagungarria izan daitekeelako antzeko egoera batean dagoen pertsona batentzat, eta, bestetik, gizarte mailan ere landu beharreko errealitate bat delako.

Besarkadak izeneko elkarteak suizidioarekin lotutako egoerak lantzen ditu. Egoera pertsonalak bideratzeaz gain, gazte nahiz helduei zuzendutako tailerrak antolatzen ditu. Besteak beste, Araitzen izan ziren ekainean, nerabeentzat antolatutako saio bat eskaintzen. Bertaratzen direnen ideietatik eta hausnarketatik bideratzen saiatzen dira saioa, gazteek zer uste duten, zer aditu duten eta zer aurreiritzi dituzten galdetuta. Psikologo batek ere parte hartzen du. Hortik abiatuta, nerabeei baliabideak ematen saiatzen dira, suizidioari buruzko oinarri bat azaltzen, informazioa eduki dezaten.

Elkarteko kideek uste dute beharrezkoa dela suizidioaz hitz egitea, aurreiritziak deuseztatzea eta laguntza ematea behar duen pertsona horri. Horretarako, ezin zabaldu daiteke suizidioa ez dela existitzen, jendea ez dela suizidatzen, eta ez dagoela sufritzen ari den inor. Haratago, uste dute suizidioaren gaia plazaratuko balitz

eta normaltasun handiagoz landuko balitz, kasu asko saihestuko liratekeela. Izan ere, elkarteak emandako datuen arabera, azken hilabeteotan asko igo da suizidioen kasua, %40 inguru; edo, behintzat, laguntza eske deitu dutenen kopurua. COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz, denbora asko eman dugu isolatuta, etxetik kanpoko jendearekin harreman zuzenik izan gabe, egunero egoera larri batean egon garela entzuten, beldurrez, mugatuta, eta ho-

rrek guztiak eragin du igoera hori.

Hori hala, Besarkadak elkarteko kideek zabaldu nahi duten mezua da sufrimendua egon badagoela gizar-tean, baina pertsona orok sufritzen dugula, gauza bategatik edo besteagatik, baina normala dela: ez dugu inor epaitu behar sufritzen duelako. Egoera horretan daudenei, esan nahi diete ez lotsatzeko, inguruan dituztenengan babesteko eta laguntza eskatzeko.

► SUIZIDIOAREN ADIERAZGARRIAK:

- ↳ *Saiakerak: aurretik suizidatzen saiatu bada, berriz egiteko tentazioa izan dezake. Horregatik, garrantzitsua da arreta handia eskaintzea eta asko babestea, zaurgarriagoa delako.*
- ↳ *Hitzak: baten batek esaten badu bere biziarekin amaiaraztea pentsatzen ari dela edota ez duela bizi nahi, arreta eskaini.*
- ↳ *Agurrak: ingurukoak agurtzea, arazoak konpontzea, ohi baino maitekorrago egotea.*
- ↳ *Sare sozialak: ezohiko iruzkinak idaztea edota ezohiko gauzak argitaratzea.*
- ↳ *Jarrera aldaketak: desberdin jokatzeta, azkarrago gidatzea... bere burua hainbeste ez babestea eta arriskuan jartzea.*
- ↳ *Zauriak: nork bere burua zauritzea. Pertsona batek bere burua zauritzen duenean eta min fisikoa sentitzen duenean, min psikologikoa txikitu egiten zaio, eta hobeki sentitzen da horrela.*



▶ **INGURUKOEK ZER EGIN LAGUNTZEKO:**

- ↳ *Pertsona horrekin hitz egiten saiatu.*
- ↳ *Ez epaitu.*
- ↳ *Ahal duzun neurrian lagundu edota laguntza eskatu.*
- ↳ *Gaiaren inguruan informatu.*

▶ **ZER EGIN INGURUKO NORBAIT HILTZEN DENEAN:**

- ↳ *Haren oroimena mantendu, pertsona horri buruz hitz egin. Askorentzat lagungarria izaten da hil den pertsonari buruzko anekdotak edota oroitzapenak kontatzea eta partekatzea.*
- ↳ *Laguntza eskatu. Ez gara ausartzen laguntza eskatzen, eta garrantzitsua da, ingurukoei nahiz profesionali. Egoera txar bat luzatzea kaltegarria izan daiteke, ondorioak larriagoak direlako.*
- ↳ *Zeure burua ez epaitu eta ez pentsatu errua zurea izan denik.*

▶ **BALIABIDEAK:**

- ↳ *Besarkadak elkarteak: zerbitzua banaka nahiz taldeka eskaintzen dute. Hau da telefono zenbakia: 622 207 743.*
- ↳ *112 larrialdi deiak.*
- ↳ *Itxaropenaren telefonoa: deia anonimoa da, eta edozein unetan deitu dezakezu laguntza eskatzeko edota informazioa jasotzeko. Hau da telefono zenbakia: 717 003 717.*



Lagunasesoría S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

Lontxo
Otamendi
Artola

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz



LARRAUN BAILARAKO AGENDA DIGITALA AURKEZTU DUTE

Larraundar guztienezako topagune izan nahi duen webgune bat sortu dute hainbat eragilek. Horren bitartez, egiten diren jarduerak ikusi eta ezagutu daitezke, eta ekintzak antolatzen eta zabaltzen lagundu. Ekainaren 18an egin zuten aurkezpena, eta bertaratu zirenek, egitasmoan konfiantza jartzeaz gain, eskerrak eman zizkieten sortzaileei. Bakoitzak papertxo batean idatzi zuen zein hedabiderekin lotuta dagoen, eta denek sare bat osatzen dutela sinbolizatu zuten. Agendara larraun.info edo lekunberri.info bidez sar daiteke.



TXIMUUTXEK PROGRAMAZIO FEMINISTA BAT ESKAINIKO DU UDAZKENERA BITARTE

Gure gorputzen jabe izenburupean, Araitz eta Belueluko Tximuutxe bilgume feministak programa feministak programa bat osatu du. *Anderea* dokumentala eman zuten. Bertso afari bat antolatu dute uztailaren 23rako; Uztegin izango da, Maialen Lujanbio eta Miren Artetxe bertsolariekin. Irailean, Andreina Jolin taldearen kontzertua izango da; urrian, samurtasun eta sexualitate tailerra, eta konpresa bererabilgarrien tailerra.

'ALTXORRAREN BILA'-K DENBORALDIA BUKATU DU

Amaitu da Altxorraren bila-ren hirugarren denboraldia. Aisia gozatzea, inguruak ezagutzea eta harremanak sendotzea du xede. Ekainaren 6an Aralarreko Amutxateko koba bisitatu zuten, Eneko Aguirre biologoarekin. Gero, Errazkingo txaboletara joan ziren, eta Santos Argiñarena artzainarekin eta haren familiarekin izan ziren. Egindakoak ikusteko: larraun.info/altxorrenbila.





ITAIA, EMAKUME LANGILEAREN ALDE

Itaia Emakumeen Antolakunde Sozialista taldea aurkeztu zuten ekainaren 10ean eta 11n Larraunen eta Araitzen. Itaia genero problematikari erantzutea du xede. Euskal Herriko zenbait eskualdetan antolatzen da, eta emakume langilearen zapalkuntza gainditzeko bidean, bailaran ere ekarpena egin nahi izan diote talde honen sorrerarekin. Horrez gain, ekainaren 18an *Biolentzia, harremanak, biolentzia eta jai eredu* hitzaldia eman zuten Printzan, eta ekainaren 25ean solasaldi bat antolatu zuten Amavir zahar etxeko langileekin.



ARALAR UDAL MUSIKA ESKOLAREN KONTZERTUAK, LEKUNBERRIN ETA ARAITZEN

Aralar Udal Musika Eskolako ikasleek urtean zehar ikasitakoa plazaratzeko aukera izan zuten. Zehazki, gure bailaretan bi kontzertu tematiko eskaini dituzte ekainean, ikasturtea borobiltzeko: lehena, Lekunberrin egin zuten, ekainaren 9an, eskolako patioan; eta bigarrena, berriz, Arribe-Atalluko frontoian eskaini zuten, ekainaren 11n.

PRINTZAREN BIGARREN URTEURRENA OSPATU DUTE

Larraungo Printzak bi urte bete ditu dagoeneko, eta giro ezin hobean ospatu zuten urteurrena. Bizikleta martxa bazekin hasi zuten eguna, eta bertso bazkari bat antolatu zuten eguerdirako; Saioa Alkaiza eta Eneko Lakoz bertsolariak izan ziren bazkarian kantatzen. Bertso saioaren ostean, Burutik musika taldearen emanaldiaz gozatu ahal izan zuten.



Erraldoi eta kilikien dantza

Larraungo eta Lekunberriko bizilagun batzuk elkartu dira erraldoi eta kilikien konpartsa bat sortzeko. 2018. urtean ekin zioten proiektuari, eta dagoeneko hasiak dira pertsonaiei bizia ematen. Azken emanaldia Aldatzen egin zuten, Larraungo Egunean, eta giro paregabea sortu zuten musikaz alaiturik. Konpartsako kideak inguruko herrietan emanaldiak egiteko gogoz gainezka daude.

16

Erraldoiak munduko herrialde askotako protagonista nagusiak izan ohi dira festetan. Nafarroan ere ibilbide luzea dute, aspalditik alaitzen eta girtzen baitituzte herrietako txoko eta bazterrak. Lekunberri eta Larraungo bizilagun batzuk orain dela hiru urte

inguru elkartu ziren konpartsa bat sortzeko asmoz, 2018. urtean. Hasi-eran ideia bat zena, errealtate bihurtu da, eta konpartsako kideak dagoeneko hasiak dira beren erraldoi eta kilikiak inguruko herrietan erakusten, dantzaz eta musikaz blai. Hogei kide

inguruk osatzen dute konpartsa gaur egun, eta Lekunberriko kiroldegia da erraldoi eta kilikien etxea: han deskantsatzen dute, eta kiroldegian egingen dituzte entseguak, larunbatetan. Azken ekitaldia ekainaren 19an egin zuten, Larraungo Egunean, Aldatzen. Eguraldia lagun, azkenean emanaldiaren zatirik handiena kalean bertan egin ahal izan zuten.

Ioseba Ordoki izan da konpartsaren sorreratik lanean aritu den kideetako bat. Azaldu duenez, konpartsa bat sortzearen ideia bururatu zitzaionean, bazekien talde baten beharra izango zuela proiektu hori aurrera eraman ahal izateko. Horregatik, pertsona batzuk elkartu, eta ideia gara-



tzeari ekin zioten. Abiapuntu izan zen hasierako talde horretan zeuden Inma Etxarri, Ainhoa Beraza, Olga Garcia, Koldo Monreal, Idoia Olaskoaga eta Ordoki bera. Horiz gain, gainera, baziren proiektuari forma ematen laguntzen aritu ziren beste pertsona batzuk ere, zer egin zezaketan pentsatzen, zer itxura eman erabakitzen.

Ezer baino lehen, zortzi hilabete inguru eman zituzten dokumentazio lanetan: bailarako bizimodua aztertu nahi zuten, garai bateko jendearen ohiturak ezagutu nahi zituzten, tradizioak, janzkerak... 1500. urte inguruko dokumentuak aurkitu zituzten Lekunberriko liburutegian, eta data hori ardatz hartuta, Nafarroako Gobernuko liburutegiko artxibategian ere bilatzeari ekin zioten. Batetik eta bestetik lortutako informazioarekin, eta bailaran aspalditik bizi den jendeak esandakoarekin, puzzlea osatuz joan ziren. Garrantzitsua zen konpartsa kideentzat argi izatea zer zen kalera atera nahi zutena, zerren adierazgarri izan behar zuten erraldoi eta kilikiek. Dokumentu horietan, bailaran garai batean garrantzi handikoak izan ziren pertsonaiak ikusi zituzten, baina asko botereari lotuta zeuden zuzenean, erregealdi eta erreginaldiei, eta hori ez zen erraldoien bidez adierazi nahi zutena. "Kaleko jendearen bizitza erakutsi nahi izan dugu, jende normalaren bizitza. Saiatu gara erraldoiek islatu zezaten bailaran garai batean izandako ohiturak eta kultura", azaldu du Ordokik.

Zer egin nahi zuten argitzean, erraldoiak eta figurak egiteaz ardu-



Aldatzen herrian zehar nahiz frontoi barruan eskaini zuten emanaldia. Arg: Labrit.



ratzen zen enpresa batekin jarri ziren harremanetan. Zehazki, Aitor Callejak gidatzen duen enpresaren bitartez egin dituzte, eta, prozesu horretarako, konpartsa kideek ordura arte bildu zituzten dokumentu, irudi eta datu guztiak eman zizkien. Elkarlan horretatik jaio ziren gaur egun dituzten lau erraldoi ederrak: Larraun, Napar, Malloa eta Larrain. Baita hiru kiliki dibertigarriak ere: Elutsa, Arotza eta Gaztaundi.

Xehetasun guztiak kontu handiz aztertu dituzte; ez soilik janzkera, baita elementu bakoitzaren zergatia ere: txapela jartzeko modua, egun arrunt batean nola janzten ziren, Kaikua egun berezietan jartzen zutela soilik... Naparrek, esaterako, *Txupiña* izeneko instrumentu bat dauka eskuan: garai batean zuhaitzen azalarekin egin ohi zuten txirula moduko bat, zeina Aralarko artzainek egiten zuten soilik.

Finantzaketa pribatua

Konpartsa, berez, lau erraldoi eta sei kiliki osatzen dute, baina hiru kiliki oraindik ez dira ailegatu, pandemia egoera dela eta. Kilikiez gain, pandemiak ere izugarri baldintzatu ditu emanaldiak, ezin izan baitituzte egin orain gutxi arte, eta ikuskizunak ezinbestekoak dira konpartsa dituen gastuei aurre egin ahal izateko. Izan ere, Larraungo konpartsa sortzea ekinbide pribatu bat izan da, eta egindako inbertsioa berreskuratzeko derrigorrez egin behar dituzte emanaldiak. Udalek ez dute ezer finantzatu, eta konpartsa kideek beren kabuz lortu behar izan dute dirua. Horregatik, enpresa pribatuengana jo behar izan dute laguntza eske, eta, horien artean, oso eskertuta daude Lacturale, Onhauss Global System, Sojonatura, Bikain, Caja Rural eta Aralarko San Migel jatetxetik jaso duten



babesarekin.. Halaber, hitzarmen bat egin dute Lekunberriko Udalarekin, eta, hitzarmen horren bitartez, urtean bost emanaldi eskaini dituzte. Horrez gain, Larraungo Udalak ekainaren 19ko emanaldia egiteko kontratatu zituen.

2019. urteaz geroztik, konpartsak Mecna izeneko zigilua eskuratu zuen, eta interes publikoko elkarte bat da orduz geroztik: Nafarroako Gobernuako Kultura Sailak ematen zuen zigilu bat. Horren bidez, nahi duenak donazio bat egin dezake, eta konpartsak kideei ekonomikoki laguntzeaz gain, pertsona horrek ere irabazi fiskalak ditu, ogasunari diru

gutxiago aitortu behar baitio modu horretan.

Pausoz pauso

Erraldoiek 3,5 metro inguruko altuera dute, eta 45 kilo inguruko pisua. Ez da batere erraza horiek bizkarrean hartu eta aurrera eta atzera ibiltzea dantzan. Konpartsak kideek ere ez zuten sekula horrelakorik egin, baina Koldo Monreal, Patxi Laborda eta Alvaro Javier Aguadori esker ezin hobe ikasi dute koordinatzen eta dantzaz gozatzeko. Entseguetan pausoak ikasten dituzte, koordinazioa lantzen dute, ordeka mantentzen, eta dena buruz ikasten, erraldoiaren barruan egonda kanpoko oso gauza gutxi ikusten baita. Ordokik taldeak egindako lana goraiatu nahi izan du: "Ez dugu ezertxo ere kobratzen hau egiteagatik. Hau egiten ari gara jendea alaitzeko, noizean behin bada ere, herrietako festetara ateratzeko. Jendea oso konprometituta dago, astero entseatzen dugu. Uste dut taldea ilusioz dagoela".

Hamabi lagun aritzen dira erraldoiei bizia ematen, zazpi inguru kilikiekin, eta badira ere laguntza logistikoa eskaintzen dutenak. Gainera, Lekunberriko eskolaren bitartez, hogeitazetxo ere badaude taldean. Horixe da gakoa Ordokirentzat: "Gaztetxoak taldean sartzea nahi dugu, haiek izateko konpartsak etorkizuna". Gainerako herrietarak ere konpartsak parte hartzerantz animatu nahi dituzte.

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitaratekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, errokilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

German Lasarte

ARBEONDO HARATEGIA

Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157



LARRAIN: Nafarroako emakumeen lana irudikatzen du.



LARRAUN: Inguruan artzaintzak eta animaliek duten garrantzia irudikatzen du.



MALLOA: Aralar, Malloak eta emakumeek naturarekin duten harremana sinbolizatzen ditu.



NAPAR: Nafarroako ohiturak sinbolizatzeko egina. Dirudun zaku bat dauka, apustuei erreferentzia egiteko. Beste eskuan, txupipiña.

KONPARTSA



APAIZA: Eliza oso presente zegoen ekitaldi guztietan, eta gainerakoak baino hobeto jaten zuen.



AROTZA: Artisan lanei eskeinia, bereziki inguruan egindako zintzarriei.



MAKINISTA: Plazaolan izandako makinistaren omenez egina.



ELUTSA: Hotza eta haizea sinbolizatzen ditu.



GAZTAUNDI: Inguruan aski ezaguna den ezizena.



KATTALIN: Sorginak irudikatzeko kilikua.



Hodei Ezpeletak irabazi du Urrezko Banakako Aizkolari Txapelketa

Ekainaren 13an jokatu zuten XXIV. Urrezko Banakako Aizkolari txapelketaren finala Lekunberriko Jaian Jai pilotalekuan. Patxi Mindegia zubietarra txapelketaren buruan hasi zen lehenengo bi probetan, baina Hodei Ezpeleta eibartarrak aurea hartu zion azken proban, eta irabazi egin zuen. 20'36"ko denborarekin lortu du txapela. Mindegia 23'12"ko marka egin zuen, eta Kañameres IV.a geratu zen hirugarren, 24'11"ko denbora eginda.

Hiru Hamarreko gizonen harri-jasotzaile txapelketan, berriz, Urdax Magunazelaia nagusitu zen, 70 jasoaldi eginda. Mikel Lopetegi *Urra*-k ez zuen lortu Urdax garaitzea, eta jasoaldi gutxiago egin zituen: 67. Iñigo Eizagirre *Eiza*-k 52 egin zituen. Bestalde, emakumezkoen Kirolbet saria txapelketan Karmele Gisasola *Zelai III*-k lortu zuen txapela, 30 jasoaldi eginda. Marina Blanco izan zen bigarren, 22rekin.

Lekunberriko Skadi Arku Tiro Eskolakoak garaile Nafarroako Txapelketan



Nafarroako arku tiro txapelketa eta Nafarroako kirol jokoak egin zituzten ekainaren 5ean, eta Skadi Lekunberriko arku tiro eskolako ikasleek parte hartu zuten, baita arrakasta lortu ere. Izan ere, txapelketara aurkeztu ziren sei kirolarrietatik hiru Nafarroako txapeldun izan ziren beren kategorian, eta bigarren, hirugarren eta laugarren postu batzuk ere lortu zituzten beste batzuek, gogor saiatuta. Skadi arku eskola Lekunberri dago; izen emateko deitu 615757400 zenbakira edo idatzi skadi.navarra1@gmail.com helbidera.

MAILOR
GUNDU MAILOR
IA

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

Errotaldea 19,
Lekunberri

MARTILLO TXIKI
PERKUSIO ESKOLA

www.martillotxiki.com
679 938 016

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.

ZURGINTZA OROKORRA

INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI

Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA

Aralar kalea, 41
Lekunberri

OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK

948604884

ekin
rotulación

948 85 32 79

SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

Harro

Anek Mikel maite du. Ikerrek, berriz, Irati. Anek eta Ikerrek bere heterosexualitatea argi daukate. Mikel bisexuala da. Irati, ordea, ez da sekula egon beste emakume edo alua duen norbaitekin, baina erakarria sentitzen da.

Leire Lukasekin dago eta Ekaitz Mariarekin. Baina, aldi berean, Ekaitz eta Mariak Lukasekin harreman bat dute.

Ezinezkoa? Ez, baina ezta erraza ere. Harreman monogamo heterosexual eta normatiboetan idatzi gabeko (eta maiz amankomunean jarri gabeko) legeak dauden gisara, haiek zehaztuko dituzte eurenak.

Josebak Ander maite du. Josebak gaztetatik argi zuen mutilak atsegin zituela, Anderrek, berriz, ez zuen lehen esperientzia homosexuala 30 urtera arte bizi.

Andreak Aida maite du eta Aidarentzat sostengu oso garrantzitsua izan da bere bikotearen jarrera. Aidak bular kirurgia egin behar du datorren astean (azkenean!). Ez da eroso sentitzen bere bularrekin, ez da eroso sentitzen bularren esanahi sozialarekin. Ez da bera sentitzen eta kendu eginen ditu. Ez du bestelako kirurgiarik edo aldaketarik egin nahi.

Bularrekin deseroso baina aluarekin eroso sentitzen den emakumea? Et et. Zeinek esan du emakume hitzarekin identifikatuta sentitzen denik?

Maitatzeko aukerak eta sentimenduak zabalak eta anitzak dira, baina heteronorma estu eta arkaikoarekin egin dute topo.

Harrotasuna, aniztasuna eta errespetuaren aldarrikapena ez da soilik ekainaren 28ko lana. Aurrera!



Ttutturre kirol elkarte aurrera Larraungo Itzulian

Larraungo Itzuliko hirugarren etapa egin zuten Ttutturre kirol elkarteko ki-deek, ekainaren 27an. 30 lagun inguru abiatu ziren Madotz herritik, eta Aldatz herrian bukatu zuten etapa. Hasieran, GR-20 eta Larrazpil ibilbide megalitikoaren marka gorri eta zuriak jarraitu zituzten, Larrazpil trikuharri eta lepota iristeko (1.039m). Ilarraundi lepoa jaitsi, eta Lardamingo trikuharriraino joan ziren. Handik, Larraun ibaiaren Beltzuntze zubira, San Migeltxoko gainera igotzeko. Santa Luzia basilizatik, Paitzar eta Arruizko Gesala ingurutik jaitsita ailegatu ziren bukaerara. Parte hartzeko garrantzitsua da aurretik izena ematea.



Beti Kozkor ez da igo bigarren RFEF mailara

Azken neurketa jokatzeko ilusio handia zuten, irabaziz gero, Beti Kozkor bigarren RFEF mailara igoko baitzen. Baina Ardoi futbol taldea gailendu zen hirugarren mailatik bigarreneira igotzeko final horretan, 1-2 irabazita Beti Kozkorri Lekunberrin, ekainaren 19an. Garaipena eskuratu ez bazuten ere, partidu oso hunkigarria izan zen; Beti Kozkorren zale asko bertaratu ziren futbol zelaira jokalaria animatzera. Gainera, Rodri Fernandez de Barrenaren azken partidua izan zen, zortzi urtez Beti Kozkorren entrenatzaile izan eta gero, eta haren aldeko pankartak zeuden; aurreko hilean jakinarazi zuen Izarra taldera doala. Horrez gain, zuzendaritzaren aurkako pankartak ere ikus zitezkeen, eta oihuak ere entzun ziren.



Nahikoa izan

Harrigarria izan zen ohartzea sakonean baneukala halako sentipen bat, ez nintzela nahikoa, ez nuela nahikoa, egiten nuena ez zela nahikoa. Aspalditik ezagutzen dut sentsazio hori. Sentipen sakon horrek deseroso egonarazi izan nau, konpultsiboki gauzak egitera eraman...

Egiten dudan horretan nahikoa ez izatearen sentipena gogorra izan da. Epaitua, konparatua eta kritikatu izatearen sentsazioa hor dago hegan, kanpokoek egiten ez badute ere nik neuk egiten dudan hori. Egiten dudan hori gutxiago gozatzera eraman nau horrek, nire buruarekin gogorra izatera, egiten dudan horri balio gutxi ematea.

Naizen horretan nahikoa ez izatea gogorragoa izan da agian, sakonagoa. Ez naiz nahikoa azkarra, ez naiz nahikoa ederra, nahikoa langilea... Nire burua gutxiestera eraman nau.

Ohartu naiz halako batean nahikoa ez izate horrek pisu handia daukala nire barnean, eta erabat gauzak egitera naramala hori asetzeko. Oinarrizko motibazioa hau izatea kaltegarria dudala uste dut, nagoen moduan gutxitan "nahiko" sentitzen naizelako, eta hori ez dela osasuntsua iruditzen zait.

Klik txiki bat egin zidan barrenak orain egun batzuk, ea argia jartzeko gai naizen sentipen horri. Uste dut landu nahi dudala nire barruan landatzen sentipen sakon bat naizenarekin nahikoa naizela esaten didana, inguruan dagoena ere nahikoa dela, hortik aurrera egiten dudana opari bat dela ilusioz etorriko dena. Nahikoa naiz. Aurrera!



Eskaneatu kode hau eta jolastu tabletean.

ERA.EUS plataforman, ipuin interaktiboaren bilduma

ERA.EUS plataformak bost ipuin interaktibo gehitu ditu bildumara. Plataforma euskaraz ikasten duten 0-12 urte bitarteko haurren gurasoei zuzenduta dago, eta Nafarroako toki entitateetako 28 euskara zerbitzuek sortu dute, tartean Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak. Istorioak Euskokultur Fundazioak eta Labrit Ondareak egindako ahozko memoriaren bilketaren funtsetatik hautatu eta eguneratu dira. Ilustrazio guztietan interakzio puntuak daude: sakatu eta ahotsak adituko dira. Bilduma ERA webgunearen *Baliabideak* atalean argitaratu da.

LEKUNBERRI



Kalakan eta Sodade taldeek dantzan jarri dute Lekunberri

Kalakan eta Sodade musika taldeek kontzertu itzela eman zuten Lekunberriko kiroldegian, ekainaren 24an, eta, horrela, herri soinu ekipoaren aurkezpena egin zuten. Kanpoan egiteko asmoa zuten, baina eguraldia dela eta, barruan egin behar izan zuten. 200 lagun inguru bertaratu ziren rock eta folk doinuez gozatzera. Lekunberriko Udalak eta Herri Soinu ekipoko sustatzaileek antolatuta zuten emanaldia.

ESKUALDEA

Liburu-klika kanpaina

Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Malerrekako Mankomunitateak, Sakanako Mankomunitateak eta Baztango Udalak Liburu-klika kanpaina abiatu dute, irakurketa sustatzeko helburuarekin. Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra bitarte izango da.



Ekimenaren nondik norakoak:

- Parte hartzaileak euskarazko liburu bat hautatuko du, etxetik edo liburutegitik maileguan hartuta, eta irakurriko du.
- Sare sozialetan (Instagram, Facebook, Twitter, Tik Tok, You Tube edo Twitch) liburu horren inguruko zerbait (aipu bat, gomendio bat, kritika bat, bitxikeria bat) zabalduko du. Bideo bat, argazki(-muntaia) bat edo post bat izan daiteke. Hori bai, ezinbestekoa da liburuaren izenburua garbi ikustea, baita #liburuklika traola ere. Sare sozialik ez dutenek egindakoa zuzenean e-postaz bidaliko dute euskara zerbitzura. Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatean (Larraunalde), helbide honetara bidali: larbeleareuskaraz@iparmank.eus

- 12 urtetik beherakoek liburuaren protagonistetako baten marrazkia egin edo idatziz beste bukaera bat emango diote liburuari eta e-postaz bidaliko dute euskara zerbitzura.

- Parte-hartzaileei euskarazko liburuak erosteko opari-txartelak helaraziko zaizkie, eskualdeko liburu dendetan erabili ahal izateko. Txartel horiek erabilia, liburuak %30 merkeago erosi ahal izanen dituzte (gehienez ere 15 euroko oparia izanen da liburu bakoitzarekin). Opari txartelak irailan banatuko dira eta iraila osoan erabili ahal izanen dira. Pertsona bakoitzak 3 opari-txartel jasoko ditu gehienez.



LEKUNBERRI

Aralarri buruzko erakusketa Antonea Etxean



Aralar, "Kirikuren begirada" izeneko erakusketa ikusgai dago Astiz-Irujo Fundazioaren Antonea Etxean, Lekunberrin. Fundazioak eta Aranzadi Zientzia Elkartek komisariatutako erakusketa da. Aralarko paisaiaren azken 100 urteetako aldaketak erakusten ditu. Horrez gain, paisaiaren erabileraren eta ustiapenaren garrantzia nabarmentzen du, ikazkinen, egurgileen, artzainen eta abeltzainen lanen bidez. Fermin Leizaolak, Ondare Kultur Taldeak eta beste hainbatek utzitako materialak etnografikoa dago. Astelehenetik larunbatera egongo da ikusgai, 18:00etatik 20:00etara. Igande eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

23

M. Angeles
Urrizalki

iragarkiak,
berriak,
eskelak...

Diario Vasco eta Diario
de Navarrako
Korrespontsala

948513056
699179437

Atabal
okindegia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE HARATEGIA

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

BERTAKO HARAGIA

Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldatutako
platerak.
Etxera eramateko
zerbitzua ere
eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

Hasi dira herrietako festak!

24

lazko uda ezohikoa izan zen, eta festa guztiak bertan behera geratu ziren, zenbait herritan egitasmo xumeak antolatu bazituzten ere. Aurtengoa ere ezohiko uda izango da, eta udalek eta herritarrek festak antolatzea erabakitzen badute, ez dira izango orain artekoak bezala, oraindik behintzat. Halere, Betelun sanpedroak ospatzera animatu dira, eta aire librean maskara erabili behar ez izatea arnasa izan da askorentzat. Ostiralean egin zuen eztanda lehen suziriak festei hasiera emateko, eta lehenengo aldiz San Donato Kronoeskalada mendi lasterketa egin zuten, 4,3 kilometroko ibilbidea, binaka. Larunbatean, Xabi Solanok kontzertua eman zuen eskolan dagoen frontoian, eta haren arreba Kristina ere aritu zen panderoa jotzen. Igan-dean, herri kirolak egin zituzten herriko plazan, eta iluntzean "Araxesen gainetik, Malloen azpitik" dokumentala ikusi zuten udaletxean. Astelehenean, berri- z, kantujira egin zuten herrian zehar, eta afaloste girotua izan zuten Andoni Ollokiegi musikariarekin. Festei amaiera emateko, asteartean Alaia Martin, Julio Soto eta Aitor Mendiluze bertsolariek kantatu zuten plazan, eta Alurr dantza taldeak borobildu zuen egitaraua dantza ikuskizun batekin.



Andoni Ollokiegirekin kantaldia. Arg: Labrit.



Xabi Solanoren emanaldia. Arg: Labrit.





Herriko hainbat txokotan ibili ziren kantuan. Arg: Labrit.



Iban Buldainek, Eneko Saralegik, Jon Oterminek eta Asier Etxekaltek jokatu zuten frontenis finala. Arg: Labrit.



emozioen munduan

●● Lorea Zulet (Psikologoa)

Presio soziala

Zure bizitzan hartutako erabakiak eta ekintzak nahi dituzulako egin dituzu? Edo behartuta sentitzen zarelako?

Askotan, konturatu gabe, familiarak, lagunak, gizarteak berak ezarritako bidea jarraitzen dugu, geure buruari galdetu gabe benetan zer iruditzen zaigun "inposaketa hori". Edo besteek zer esango dutenaren arabera jokatzeko dugu. Zergatik? Presio sozialagatik.


Presio soziala da talde sozial baten daukan eragina pertsona baten akzio, pentsamendu edo baloreak aldatzeko intentzioarekin.

Normalean, leku bakoitzeko gizarteak bere "arauak" markatzen ditu,

sozialki onartuak izateko jarraitu behar ditugunak. Arau horiek erlijioak, tradizioak, etikak edo moralak markatutako baloreak jarraitzen dituzte normalean. Hala ere, hauek aldatuz doaz urteak pasatu ahala (zortea badago), ikaskuntza berriak integratzen. Inposaketa sozial hauen adibide izan daitezke: bikoteen formulazioa, bikote hauek monogamoak eta kontrako sexuak izatea, ezkondu eta umeak izatea... zorionez hau aldatuz doa poliki-poliki, eta nahiz eta oraindik gaur egun badauden sozialki gaizki ikusita dauden ekintzak, ematen du gero eta ekintza gehiago onartuta daudela. Edo hori

sinistea gustatuko litzaidake.

Zergatik eragiten gaitu hainbeste presio sozialak? Dudarik gabe, arau horiek onartzen ditugu gizartean onartuak izateko. Ustez egin beharrekoa egiten dugu, gehiengoak dioena, "arraroak" ez izateagatik, ezberdinak ez izateagatik, esanbiderik ez ematearren... gainontzekoekin moldatzen saiatzen. Baina honek ondorio batzuk dakartza. Azken finean, ekintzak egiten edo egiteari uzten badiogu ingurukoak asetzeko, pozik sentituko ez den pertsona bakarra norbera izango da. Beraz, prest zaude zure zorionari uko egiteko gehiengoak iradokitzen duenean egokitze, horren atzean



dagoen arrazoa jakin gabe ere?

Honetaz kontziente izateak benetan sinesten duguna egiten lagunduko gaitu, bereizten zer den gure barrutian egin nahi duguna edo zer ez dugun egiteko gogorik. Behatu, zergatik inporta zait zer dioten gai-nontzekoek? Zer gertatzen da nahi dudana egiten badut, "arauen kontra" badao ere? Norbaiti mina eragiten diot nire ekintzekin? Norbait saminduta badago, arrazoirik daukate horrela egoteko? Edo ez dauka beraiengan eragin zuzenik? Ekintza horietan pertsona gehiago badaude, kontuan izan al dituzu erabakiak hartzeko orduan? Behin galdera hauek erantzunda eta erabakiarekin aurrera egin behar duzula erabaki behar baduzu, zorionak; ez da bide erraza izan, eta ez da bide erraza izango, baina emaitzarekin askoz zoriontsuago sentituko zara, arro, nahiz eta gero ez izan espero zenuena. Asebetetze horrek zure independentzia eta autoestimua elikatuko ditu.

Adi, zure erabakiarekin aurrera jarraitzeak ez du esan nahi bide erraza izango denik edo jendeak ez duenik zure ekintzei buruz bere iritzia emango. Esan nahi du ingurukoek erabaki horri buruz beren iritzia ematen badute edo kritikatzeko bazaituzte, zuk arrazoiak izango dituzula defendatzeko. Ez du esan nahi ez zarela erreta sentituko, baizik eta erresumin hori konpentsatzeko zure barne zoriona eta segurtasuna izango dituzula. Ez

du esan nahi ez dugula beldurra sentituko, baina aurrera jarraitzeko beste arrazoiak izango dituzu.

Agian behin egoera analizatu ondoren hartzen duzun erabakia konbentzionalismoekin jarraitzea da, edo presio sozialarekin jarraitzea erabakitzen duzu, benetan nahi duzuna delako edo bestelako barne arrazoiengatik. Ondo egongo da, betiere, erabakia modu kontziente batetan hartu badugu. Helburua ez da beti gizarteak markatzen duenaren kontra joatea, baizik eta za-

lantzan jartzea zergatik egiten ari garen egiten duguna edo benetan nahi duguna den.

Beraz, galdetu zeure buruari: zergatik egiten dut hau? Nahi dudalako edo behartuta sentitzen naizelako? Eta egiten duzula eginda, behintzat kontziente izan.



Hormak LGTBIQ+ elkarteak: ikusgarritasunaren alde lanean

Lekunberriko eta inguruko zenbait herritarrek Hormak LGTBIQ+ elkarteak sortu dute. Herritarrak gaiaren inguruan informatu nahi dituzte, zalantzak argitu, ikusgarritasuna eman, eta, nola ez, argi utzi komunitate horretako kideek aske eta seguru bizitzeko eskubidea dutela. Pozik daude antolatzen ari diren topaketek izan duten harrerarekin, eta nahi duenak parte hartzeko deia egin dute.

Borroka eta aldarrikapenerako eguna. Hala izaten da ekainaren 28a, LGTBIQ+ Komunitatearen Nazioarteko Eguna. Aurten ere kolorez bete dituzte kaleak han eta hemen hainbat eta hainbat herritarrek, aniztasuna aldarrikatzeko, eskubideak eskatzeko, oraindik ere erresistentzia direla argi uzteko. Egun berezia izaten baita Harrotasunaren Eguna, baina, hitzordu berezi horretatik harago, badira urte osoan zehar LGTBIQ+ komunitateko kideen eskubideen eta ikusgarritasunaren alde lanean ari diren hainbat elkarte: horietako bat da Hormak.

Herritar batzuk Harrotasunaren Eguna antolatzen ari zirela, orain dela bost urte, konturatu ziren elkartzeko beharra zutela, batzekoa, pertsona sare bat egiteko beharra. Izan ere, ikusten zuten herrian eta inguruan LGTBIQ+ pertsona asko zeudela, baina bakoitza bere talaiatik ari zela borrokan, bakarrik. Gabezia horri atera-

“Sexilio’-a asko gertatzen da: kanpora bizitzera joatea orientazio sexualagatik”

bide bat emateko asmoz sortu zuten Hormak LGTBIQ+ elkarteak. Ordura arte Lekunberri nahiko ezkutatuta zegoen gai bat zen, eta, hain zuzen, itzalean zegoen hori guztia argitara ateratzeko sortu zuten elkarteak: gaia ikusarazteko, LGTBIQfobiaren aurka egiteko, herritarrak informatzeko. Mendialdeko LGTBIQ+ pertsonen sare bat osatu nahi zuten, baina espazio ireki bat dela kontuan hartuta, gaur egun Imotz, Basaburua, Sakana, Irurtzun, Arakil, Leitza, Areso eta Urri-tzaraino ere ailegatu da Hormak.

Hormaken sorreratik, argi izan dute ikusgarritasuna lantzea eta handitzea ezinbestekoa dela herrian espazio seguruak sortzeko. Orain-

dik ere asko armairuaren barruan daudela identifikatu dute, eta sexilio fenomenoak asko gertatzen dela: hau da, inguruko asko joaten direla herritik kanpo bizitzera beren identifikazio edo orientazio sexuala dela eta, egoerak behartuta edota herrian bertan nahi bezala bizi ezin direlako. Fenomeno hori nahiko hedatuta dago, eta gehienbat landa eremutik hirietara gertatu ohi da. Halaber, Hormak elkarteko kideek hori ekidin nahi dute, herritarrak herrian geratzea nahi dute, eta uste dute informazio hori guztia helaraztea premiazkoa dela.

Erreferenteen bultzada

Hormakekoen arabera, landa eremuan edo herri txiki batean bizitzeak alde onak eta txarrak ditu: batetik, alde positiboa da herritarrek asko ezagutzen dutela elkar, eta, ondorioz, babes moduko bat izaten dela armairutik ateratzean; bestetik, hiri batean armairutik ateratzean errazagoa da talde txiki batean egiten duzulako, izan lagunekin edo familiarekin, baina herri txiki batean, ahoz aho segituan zabaltzen da armairutik atera zarela, eta herri guztiaren aurrean jartzen zara ikusgai.

Baina nola eman gai honi ikusgarritasuna herri txiki batean? Ba, erreferenteak emanez, erakutsiz herrian bertan badirela kasuak; adibide errealak erabiliz, alegia. Izan ere, errealitatearen bidez gauzak asko errazago ulertzen direla uste dute, eta dena askoz indartsuago bihurtzen dela. Horretarako, modu didaktiko batean lantzen dituzte LGTBIQ+ gaiak. Gintonada izena eman diote informatzeko eta eztabaidatzeko sortu duten elkarguneari: trago baten bueltan egiten dituzten hizketaldiak





dira Gintonadak, elkarrizketa dinami-koak, eta herritar guztiei zabaldua daudenak. Afal ondorean antolatzen dituzte, eta kideek nabarmendu dute libreki hitz egiteko topaguneak direla, ez dagoela akatsik, zalantzak argitzeko antolatzen dituztela, eta bakoitzak bere iritzia eman dezakeela. Hiru antolatu dituzte orain arte, eta Hormakeko kideak oso pozik daude izan duten harrerarekin.

Antolatutako ekintzez gain, bideo-klip bat ere egin dute, Lekunberri bertan. Ametsetan gaude izena du abestiak, eta Urritza herriko eta Hormak elkarteko Peio Aldazek jarri dio ahotsa kantuari. Irurtzunen antolatutako topaketa batean izan zuten bideo-klipa aurkezteko aukera, eta Youtuben ere ikusgai dago. Bideo-klipak bikote gay baten harremanak ikusarazten ditu.

Lekunberri, seguruago bihurtzen

Herrietan eta herritarrengan eragitea dute helburu Horma elkarte-koek, eta horretan dihardute. Nafarroako Gobernuak 2017. urtean

onartu zuen LGTBIQ+ legea, baina, kideen arabera, ez da betetzen. Lekunberri bertan ere kolektibo horretako pertsonen zuzendutako irainak entzuten dituztela esan dute, mota horretako txantxak egiteko ohitura handia dagoela oraindik ere, baina pixkanaka-pixkanaka aurrera egitea ari direla. Hain justu, Lekunberriko Udalak LGTBIQ+ diskriminaziorik gabeko eremu izendatu du herria berriki, eta Europan hori egin duen 23. herria izan da. Izatez oraindik ere LGTBIQ+ pertsonak euren herrietatik botatzen ari diren hainbat estatu baitaude, hala nola Polonia eta Hungaria.

Hormak elkartekoek herritarrak parte hartzerantz animatu nahi dituzte. Argi utzi dute bakoitzak nahi duen moduan parte har dezakeela, lehenengo lerroan jarri gabe edota lehenengo lerroan jarrita. Gainera, edozein gauzetarako, *@hormak_* Instagram kontua eta *hormakelkar-tea@gmail.com* helbidea dituzte.

Lekunberri bertan kolektibo horretako pertsonen zuzendutako irainak entzuten dituzte

Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

amairu bar

ETXKO PIZZAK,
KOPA BEREZIAK

948504352

ALIPROX
Lekunberri
janaridenda

hamabostaldi eskaintza bereziak



CONSTRUCCIONES

ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK
FATXADAK
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri

"PARTIZIPACCIÓN", GAZTERIAREN HERRITARTASUN AKTIBOA SUSTATZEKO

Uda honetan, 14 eta 17 urte artean baldin badituzu eta gure bailaran aktiboki parte hartu nahi baduzu, animatu zaitez aisialdi jardunaldira. Uztailaren 12tik 15era goizeko 9:30etik 14:30era, Urtxintxa aisialdiko hezitzaileen eskolaren eskutik. Izen emateko deitu 605 46 68 05 zenbakira edo idatzi [jua-
nena@gmail.com](mailto:jua-
nena@gmail.com) helbidera. Tailerra euskaraz izango da!

Gazteriaren herritartasun aktiboa sustatzeko tailer bat da, gazteak aisialdiko hezkuntzaren munduan hasten dituen hezkuntza-proiektua, aurre-monitoreak hezitzen dituen, beren herria hobetzeko integrazioarako eta lankidetzarako baliabide gisa.



Pertsona urduria bazara, ideak badituzu eta martxan jartzeko gogoz bazaude, edo, agian, oraindik ez baduzu ezer buruan, baina modu kritikoan pentsatzen eta zure komunitatearekin gehiago aplikatzen ikasi nahi baduzu, "PARTIZIPACCIÓN" da zure lekua.

Antzonia
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZER

634 551 743
infoaralar@gmail.com

MALLOAK
ARTZAI GAZTAK

Granja Martikoa, GAITZA, Nafarroa
Telf: 649 472 037 - fax: 692 511 057
Malloak.com | info@malloak.com

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

**AURRERA
TABERNA**
ARALAR, 15
948 60 47 24

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza

urrutia
enea

etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA

696 658 288
LEKUNBERRI

ce consulting
empresarial
ANA RAMOS MARTÍN

GESTORIA
666 939 332
aramos@ceconsulting.es

GALBURU
okindegia - panadería
Egur-labean egina!

Alde Zaharra 50
LEKUNBERRI
948 50 40 42

▶ AGENDA



UZTAILA

- 04 - Printzako baratzeko auzolana, 18:00etan.
- 08 - Mural margoketa Printzan, *Izan ere damutu aurretik hobe dugu borrokatu*, 16:00etatik aurrera.
- 09 - Landarte egitasmoaren lan saioa eta artistaren aurkezpena, Araizko udaletxean, 18:00etan.
- 13 - Txikiren bakarrizketa eta merendua Printzan, 18:00etan.
- 22 - Muxutruk: Ekarri edota hartu nahi duzuna. Printzan, 16:00-18:30.
- 23 - Bertso saioa Uztegin, Miren Artetxe eta Maialen Lujanbio bertsolariekin, Tximuutxeren *Gure gorputzen jabe* programazio feministaren barruan.
- 28 - Volley txapelketa azkarra Printzan, hamasei bikote gehienez.
- 30 - Balerdi Balerdi taldearen kontzertua Printzan, 18:00etan.

AZKARATEKO FESTAK

Uztailak 3

- 13:00etan txupinazoa.
- 14:00etan bertso bazkaria Julio Soto eta Iker Zubeldia bertsolariekin.
- Ondoren, bingo musikatua.

Uztailak 4

- 12:00etan ume eta heldu jolasak.
- 18:00etan kirol probak. Trontza eta aizkora.
- 20:00etan Andoni Ollokiegi musikaria.

Uztailak 7

- 10:30ean erromeria San Fermin ermitara.
- 13:30ean puska biltza.



▶ MERKATU TXIKIA

SALGAI

▶ Bi perikito beren kaiolarekin salgai Lekunberrin. Interesa izanez gero, jarri harremanetan : 699897907 (Laura)

LAN ESKAINTZA

▶ Irurtzango Pikuxar Elkartea taberna berrirako sukaldari bila dabil: Interesa baduzu bidali zure CVa pikutaberna@gmail.com helbidera. Astean 12 orduko lanaldia da, txandaka. Beharrezkoak dira jarrera

proaktiboa eta lanean autonomia edukitzea, bestalde, euskara jakitea eta sukaldaritzan esperientzia izatea baloratuko dira.



Etxe bat



bazkide bat

EGIN ZAITEZ MAILOPEKO BAZKIDE
ETA ZUZENEAN BI HILABETERO
EGINEN DIREN ZOZKETETAN PARTE
HARTUKO DUZU!



MAILOPE

BAZKIDETZA EGITEKO BIDEAK:
MAILOPE@LABRIT.NET
638 652 339
[HTTPS://MAILOPE.EUS/BAZKIDETZA/](https://mailope.eus/bazkidetza/)